


euskararen berripapera

214



Etorkizuneko jarduera plana zehazten hasi da **Euskararen Aholku Batzordea**

Ekintza Mapa Berriak segida hartuko dio azken 12 urteotan administrazioan zein gizartean erreferentea izan den Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari.



Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) berrikusten eta Ekintza Mapa Berriaren egitura eta edukiak lantzen hasi da Euskara 21 batzorde-atala, otsailaren 22an izan den bileran. Datozen urteotako Hizkuntza Politikaren oinarriak *Euskara 21* ponentzian adostu bazi- ren ere, Euskararen Aholku

Batzordeak erronka berria du aurrean: orduan adostu- tako lan-ildo orokor horietatik abiatuta, bideragarriak eta eragingarriak izango diren neurri zehatzez osatuta- ko plangintza orokorra diseinatu beharko du. Ekintza Mapa Berriak segida hartuko dio azken 12 urteotan herri-administrazioan zein gizartean erreferentea izan den Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari.

Otsaileko bileran 30 lagun elkartu ziren, eta, batzorde- atal berria osatzeaz gain, batzordearen egitekoak, lan egiteko metodologia eta egu- tegia erabaki ziren. Batzordearen gogoeta modu ahalik zehatz eta praktikoenean bideratzearen, lan-talde txi- kiak eratu dira hizkuntza-polit- ikaren hainbat eremuren inguruan, berriaz eztabaidatu eta proposamenak egin ditzaten. Lehenengo taldeak irakaskuntza, euskaldun- tze-alfabetatzea eta familia bidezko transmisioa izango ditu hizpide. Bigarrenak, administrazioaren eta gune



euskaldunen inguruan jardungo du. Enpresa mundua, aisia, kirola edota erlijioaz arduratuko da hirugarren tal- dea. Hedabideei buruzko lan-taldea ere izango da, prentsa idatzia, irratia, telebista nahiz IKTen inguruan arituko dena. Azkenik, liburugintza, kulturgintza, publi- zitatea, corpus-plangintza edota euskararen kalitatea aztertuko duen taldea ere sortu da.

Hurrengo bilera apirilaren 12an egin zuten, eta, ber- tan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) euskararen adierazleen gaineko ebaluazio-txostena aurkeztu zien batzordekide guztiei. Batzordeko kideek hilabeteko epea izango dute euren iritzia eman eta EBPNren gaineko ekarpenak egiteko. Horien berri iza- tean, HPSk euskararen sustapenerako Ekintza Mapa Berria diseinatuko du etorkizuneko ildoak definitzeko.

Bestelako batzorde-atalak

Euskararen Aholku Batzordearen beste batzorde- atalak ere hasiak dira lanean. Otsailaren 24an elkar- tu zen Informazio eta Komunikazio Teknologia batzorde- atala. IKTen alorrean euskarak dituen beharren zerrendan lehenetasunak ezarri eta arrazoitzea izango dute lehenetasunen artean.

Toponimia batzorde-atala, berri, martxoaren 2an elkartu zen lehenengoz, orain arte burututakoaren balantzea egin eta datozen hilabeteetako eginkizunak zehazteko.

Terminologia batzorde-atalak, azkenik, martxoaren 3an ekin zion lanari. Egitekoen artean, hiztegi termi- nologiko berriak onartu eta kaleratzea izango du ●

AT! ikuskizuna, Etxepare Euskal Institutuaren ispilu

Etxepare Euskal Institutuak ikuskizun berezia eskaini zuen Bilboko Arriaga antzokiko oholtza gainean, martxoaren 15ean. AT! ikuskizunak Institutua bera aurkeztu nahi zuen, eta, nola ez, euskal artisten ahalmen sortzailea.



Eusko Jaurlaritzako ordezkariek.

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari atxikita dagoen erakundea da eta bere egitekoa euskara eta euskal kultura munduan zehar hedatzea da. Erakundea jendaurrean bistaratzeko asmoz, hainbat artistak osatutako ikuskizuna eskaini zuten martxoaren 15ean. Fernando Bernués eta Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean, AT! ikuskizuna talde lanean prestatutako ekitaldia izan zen, eta euskaraz zein gaztelaniaz idazten duten 25 euskal idazleren testuak bildu zituen. Testuak berriaz sortu ziren ikuskizunerako, eta 28 aktorek, 7 musikariek eta 7 dantzariak izan zuten eszenaratzeko ardura. Etxepare Euskal Institutuaren zuzendari Aizpea Goenagak adierazi zuenez, «AT! ikuskizuna Institutuaren filosofiari erabat lotuta sortu da, elkarlana eta batasuna bultzatuz, euskal sortzaileen indarra erakutsi ahal izateko balio baitu».

Hogeita bost idazleek sortutako euskarazko eta gaztelaniazko testuak liburu batean bildu eta ikusleei banatu zitzaizkien ekitaldian bertan. Aurki, idatzi horiek Etxepare Euskal Institutuaren webgunean zintzilikatuta egongo dira. Goenagak adierazi zuenez, ikuskizunean denbora eta leku mugarengatik parte-hartzerik izan ez zuten hainbat artistarekin harremanetan jarri eta haiei ahotsa emateko asmoa du.

Bide labur emankorra

Etxepare Euskal Institutuak denbora gutxi darama lanean, baina dagoeneko hainbat jarduera egin ditu euskara eta euskal kultura sustatzeko.

Stanford University (AEB), University of California – Santa Barbara (AEB) eta University of Liverpool (Erresuma Batua) unibertsitateetan datorren ikasturtean irakurletzak jarriko dira abian. Bestalde, New York University (CUNY) unibertsitatean euskal literaturari buruzko lehen katedra irekiko da. Mari Jose Olaziregi Institutuko Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendariak adierazi zuenez, besteak beste, University of Chicago, Uni-

versität Konstanz (Alemania) eta Université de la Sorbonne Nouvelle Paris III bezalako unibertsitate ospetsuekin ari dira harremanetan, irakurleen sarea hedatzeko asmoz. Horrela, euskarak eta euskal kulturak bere tokia izango lukete gune akademiko horietan.

Horrez gain, martxoaren 30ean, Etxepare Euskal Institutuak Birminghameko Unibertsitateko Professor Lawrence Trask Lecture jardunaldian hartu zuen parte.

Akademia alorra alde batera utzita, martxoaren 27an Bernardo Atxagak Bruselako Passaporta literatur ekitaldian hartu zuen parte eta Institutua hiri bereko Film Laburren Jaialdian izan zen. Gainera, euskal zinemari zuzendutako atal berezi bat jarri zuen abian Institutuak martxoan izan zen Guadalajarako Nazioarteko Zinemaldian (Mexiko).

Etxepare Euskal Institutua eta Cervantes Institutua

Bi erakundeetako zuzendariak, Aizpea Goenagak eta Carmen Caffarelek, euskara eta euskal kultura zabaltzeko jardueretarako bi instituzioen arteko lankidetzaren oinarriak hitzartu zituzten, urtarrilaren 28an. Goenagaren ustez, hitzarmenari esker euskarak eta euskal kulturak presentzia handiagoa eta sendoagoa izango dute munduan zehar, eta akordioa bi hizkuntzen –euskara eta gaztelania– eta bi kulturen arteko elkarbizitza, errespetu eta elkarlanaren seinale da. Hitzarmenak, Cervantes Institutuak orain arte euskara eta euskal kultura bultzatzeko asmoz egindako lana sendotuko du. Hala, 1997az geroztik Cervantes Institutuak Europako hainbat hiritan euskara eskolak eman ditu eta azken hiru urteetan euskal kulturarekin zerikusia duten 119 jarduera antolatu ditu. Hemendik aurrera, euskarak eta euskal kulturak Cervantes Institutuak 44 herrialdetan dituen ia 80 zentroak baliatu ahal izango dituzte.

2011 urtean egingo diren hainbat ekintza ere aurreratu ditu Caffarelek, Damascon egingo den Chillidari buruzko erakusketa edo Bordelen egingo den euskal laburmetraien erakustaldia, esaterako.

Bi erakundeen arteko hitzarmenaren fruitu dira New Yorkeko euskara eskolak ere. Cervantes Institutuaren egoitzan astean behin hiru orduz erakutsiko dute euskara eta Etxepare Euskal Institutuak baliabideak eskura jarriko dizkio Institutu horri. New Yorken, euskara eskola horiez gain, Euskal Etxekoak ez dira ahaztu behar ●



AT! ikuskizuneko irudiak.



EUSKALTERMen bertsio berria

EUSKALTERM, 1987an UZEI erakundeak sortutako terminologia-bankua, Terminologia Banku Publikoa da 2001az gero. Ordutik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) kudeatzen du eta kontsultagai du www.euskara.euskadi.net webgunean.

Bankuaren kontsulta hobetze aldera, hainbat aldaketa egin zaizkio EUSKALTERMi eta, orain, diseinu eta funtzionaltasun berriak eskaintzen ditu berritutako bertsioan.


Bilaketari dagokionez, termino bat sartuta nahiz trunkazioa erabilita egin daiteke. Erabiltzaileak bilaketaren emaitzan antzemango du orain aldaketarik handiena; izan ere, bilatutako terminoaren arabera, termino hori duten formen zerrenda agertzen da erabileremu-sailkapen eta guzti. Horrela, erabiltzaileak zuzenean aukera dezake interesatzen zaion fitxa. Gainera, Terminologia Batzordeak onartutako terminoen kasuan, terminoaren fidagarritasun-maila aurkituko du kontsultan egin duenak:

- Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako).
- Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua (Terminologia Batzordearen onspenaren zain).
- Termino normalizatua/gomendatua.



EUSKALTERM berriak fitxan irudiak txertatzeko eta erakusteko aukera dauka integratuta.

Bestalde, erabiltzaileekiko elkarreragina sustatzeko, "Kontsultak eta iradokizunak" atalaren barruan hainbat aukera dago Bankuko informazioa osatzeko



eta hobetzeko: fitxa edo termino bat gehitu, zuzenketak egin, kontsulta puntual bat egin eta iruzkin bat egin.

Bertsio berriaren abantailak asko dira: Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordearen gomendioak argi eta garbi erakusten ditu eta horrek terminologiaren erabilera normalizatzea ekarriko du; bilaketa-sistemaren arabera, Bankuan dauden fitxa errepikatuak azkarrago eta errazago lokalizatuko dira; informazioa modu argiagoan eta zuzenagoan aurkituko du erabiltzaileak, eta erabiltzaileekiko lankidetzaren areagotuko da.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta IVAPek finantzatzen dute, bi erakundeek sinatutako hitzarmenen bidez, eta Terminologia Batzordeak finkatutako lehentasunen arabera eguneratzen eta elikatzen da. Adibidez, azken honetan, Terminologia Batzordeak 2008-2009 aldian onartu zituen 21 hiztegiak –2009an eta 2010ean HPSk argitaratutakoak– integratu dira Bankuan ●

Bidegileak bildumako beste hiru sorta kaleratu ditu HPSk

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) *Bidegileak* bildumako 59., 60. eta 61. sortak osatu eta argitaratu berri ditu. Lehenengo sortan honako biografia hauek jorratu dira: Martin Olazar Uribe (1927-2008) (Juan Manuel Etxebarria); Mikel Atxaga Fernandez (1932-2009) (Elixabete Garmendia); Jose Maria San Sebastian "Latxaga" (1933-2008) (Felix Ibargutxi), eta Mikel Laboa Manzisidor (1934-2008) (Jerardo Elortza).

Bigarrean, berriz, bidegile hauek aztertu dira: Frantzisko Inazio Lardizabal Urretabizkaia (1806-1855) (Arantzazu Muñoa); Jean-Pierre Duvoisin (1810-1891) (Elena Touyarou



Phagaburu); Emile Larre (1926) (Eneko Bidegain), eta Maria Pilar Lasarte Zubitur (1937) (Elixabete Garmendia).

Hirugarrenean, azkenik, lan hauek landu dira: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" (1831-1876) (Antton Aranburu); Juan Frantzisko Petriarena "Xenpellar" (1835-1869) (Elixabete Perez Gaztelu); Pedro Mari Otaño Barriola (1957-1910) (Xabier Euzkitze), eta Antonio Zavala (1928-2009) (Josemari Iriondo).

www.euskara.euskadi.net helbidean daude erabilgai *Bidegileak* bildumako biografiak ●



Euskadi Txirrindularitza Antolakuntzak organizatuta, **51. Euskal Herriko Itzulia** egin zen apirilaren 4tik 9ra bitartean. Lasterketa Zumarragan hasi eta Zallan amaitu zen. Itzulian 20 taldek hartu dute parte eta puntako txirrindulariak aritu dira lehian.



Itzuliaren aurtengo edizioaren babesle nagusia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza izan da. Hala, apustu egin nahi izan da kirolaren esparru guztietan ere euskara sustatu eta indartzeko. Horregatik, oraingo honetan kirolak eta euskarak tropel berean egin dute aurrera.

Auzmendiren esanetan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren helburuetako bat da kirolaren nahiz aisialdiaren eremuan ere euskarak izango dituen arnasmune eta funtzioak zaintzea: «Euskarak kalera irten behar du, aisialdira, kirolera. Ez dugu euskara eskolan edota lantokian soilik erabiliko den hizkuntza izaterik nahi, baizik eta eguneroko bizitzako eremu guztietan erabiliko den hizkuntza bizia» ●

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak **Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz** liburua kaleratu du, *Minority language protection in Europe: into a new decade (Regional or Minority Languages, No.8, 2000)* obraren itzulpena. Bertan, "Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna: Lorpenak eta Desafioak" nazioarteko biltzarrean aurkeztutako hainbat mintzaldi bildu dira. Bilbon, 2009ko apirilean, izan zen biltzar hori Europako Kontseiluak, Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuta. Lan honek Europako Kontseiluak sustatutako Gutunak etorkizunera begira zabaltzen dituen aukerak jasotzen ditu.

Hizkuntza Politikarako sailburuorde Lurdes Auzmendik liburuaren "Aniztasunean bat eginin" aitzinsolasean nabarmendu duenez, «herri txikiek zeresan handia dute denon artean eraikitzen ari garen Europa eleaniztunean» ●

Joan den apirilaren 7an eta 8an izan ziren **Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen III. Topaketak**. Lasarte-Orian (Gipuzkoa) gauzatu ziren bertoko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELEk antolatuta, eta Kutxak babestuta.

Aurtengo jardunaldietan "Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletatik?" gaia jorratu zuten. Bederatzi txosten aurkeztu ziren eta horrez gain, "Hizkuntza-politika euskaraz ez dakitenei begira" mahai-ingurua antolatu zen Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoko eta HPSko ordezkariekin. Azkenik, hainbat lan-taldek "Eragileon aurreiritziak azaleratzeko hausnarketa" burutu zuten.

Topaketen hirugarren edizioko berrikuntza nagusia erakusketa eta azoka izan ziren. Ekimen berri horien bidez, hainbat udal, erakunde eta elkartek euren esperientzien eta jardunaren berri emateko aukera izan zuten ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

- Paperezkoa jasotzeko: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es
- Bertsio digitala jasotzeko egin harpidetza www.euskara.euskadi.net/berripapera helbidean.

